

b

UPV/EHUko ERREKTOREA AUKERATZEKO HURRENGO HAUTESKUNDEETARAKO GIDA/ARGIBIDEAK

SARRERA.....	2
HAUTESLE ERROLDAK	2
NOLA JAKIN DEZAKET HAUTESLE ERROLDAN NAGOEN?.....	3
ZER EGINGO DUT ERROLDAN EZ BANAGO?.....	5
NOLA AURKEZTEN DA INPUGNAZIO BAT	5

SARRERA

Gida hau edo argibide hauek hiru fasetan banatzen dira, web orrian argitaratuko direnak hauteskunde egutegiko kasuan kasuko eguna iritsi ahala.

Lehenengo fasea hautesle erroldak eratu eta inpugnazioak aurkezteko da.

FASEA: HAUTESLE ERROLDAK

HAUTESLE ERROLDAK

Errektorea aukeratzeko hauteskondeetan, botoa eman ahal izateko, hautesle erroldan egon beharra dago; beraz, unibertsitateko kide bakoitzari eskatzen zaio hautesle erroldan bere datuak egoki jasoak daudela egiaztatzea.

Unibertsitateko kideak izan eta ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek osatzen dute hautesle errolda:

IKASLEAK

Unibertsitateko edozein titulaziotan edo ikasketatan matrikulatutako ikasleak. Hautesle erroldan agertzeko, beharrezkoa da matrikula egina izatea eta tasak ordainduta izatea 2020ko urriaren 23a baino lehen (errolda itxiera data).

IRAKASLEAK ETA IKERTZAILEAK ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

Kontratua edo izendapena izan behar da indarrean eta UPV/EHUn eskaini behar dira zerbitzuak, hau da, UPV/EHUn egon behar da jardunean. Eszedentzian dagoena, jardunean ez dagoelako, ezin izango da hautesle erroldan azaldu. Bai agertuko dira behin-behineko langileak (errektoreak izendatutako konfiantzazko kideak) UPV/EHUko lanpostuen zerrendan halako izaerarekin jaso direnak.

Sufragio aktiborako eskubidea izateko **bete beharreko baldintzak hautesle erroldak ixteko egunean, 2020ko urriaren 23an**, botoa emateko egunean ere bete beharko dira.

Unibertsitateko kideak bost hautesle sektoretan banatzen dira:

Lotura iraunkorra duten irakasle eta ikertzaile doktoreak

Lotura iraunkorra duten irakasle eta ikertzaile ez-doktoreak:

Gainerako irakasle eta ikertzaileak


Ikasleak

Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala

NOLA JAKIN DEZAKET HAUTESLE ERROLDAN NAGOEN?

Hautesle errolda urriaren 26an argitaratuko da ikastegi guztietako eta botoa ematen den gainontzeko eraikinetako (Leioako errektoregoan, Araba eta Gipuzkoako Campuseko errektoreordetzetan, Ekonomia eta Enpresen Zientzien Fakultatean eta Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoan) iragarki taula guztietan, eta eskegita egongo da azaroaren 26ra arte.

Errolda GAUR aplikazioan begiratu daiteke ere. Aplikazioan sartu ondoren, ezkerreko zutabean aukera berri bat dutela ikusiko dute "Errolda" izeneko, eta horren azpian "Errektorea aukeratzeko hauteskundeak – Errolda" izeneko azpiatala (ikusi irudia). Azken aukera horren gainean klik eginda erroldako datuak ageriko dira.



Errektorea izateko hauteskundeetako errolda

Erroldako datuak:

Errolda:	Errektorea izateko hauteskundeak
Abizenak eta izena:	
Boto-kolektiboa:	Ikasleak
Erreferentzia-ikastegia:	Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola

Boto elektronikoa kreditazioa lortzeko erabiltzaile-datuak:

Erabiltzailea:		Gakoa:	
----------------	--	--------	--

BEHIN-BEHINEKO ERROLDAREN AURKAKO ESKABIDEA:

http://www.idazkaritza-nagusia.ehu.es/p754-content/eu/contenidos/formsehu/secretaria_general/eu_instancia/impugnar.php

Irakasle eta ikertzaileek eta **AZPkoek** Langileen Atarian lortuko dituzte datuak ere, ondoko aukeran klik eginda: "Nire datuak – Errektorea aukeratzeko hauteskundeetako errolda".





Nahiz eta datuak web orrian kontsultatu ahal izan, erroldak ez dira inoiz ere hor agertuko.

ZER EGINGO DUT ERROLDAN EZ BANAGO? **INPUGNAZIO BAT AURKEZTU DAITEKE**

NOLA AURKEZTEN DA INPUGNAZIO BAT?

Inpugnazioak urriaren 29ko 10:00ak baino lehen aurkeztu daitezke modu hauetan:

- Web formularioaren bidez, horretarako klikatu [FORMULARIOA](#) bete ahal izateko.
- Idatziz Erregistro Orokorreko edozein bulegoetan, gaian jarri "errolda inpugnatzea".
- Erregistro elektroniko bidez, (ERROLDA INPUGNATZEKO PROZEDURA)

Web orriko formularioaren aplikazioak ohar bat helaraziko dio erabiltzaileari formularioa zuzen bidali dela jakinaraziz. Horrelako oharrik jasotzen ez bada, Idazkaritza Nagusiarekin jarri beharko da harremanetan idadzkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus posta elektronikoaren bidez edo, bestela, inpugnazio bat aurkeztu beharko da erregistroko bulego batean.